

LITERATURA

Izana izen gaiztoa

NARRATIBA

LABARTZARI AGUR

TXILLARDEGI


EKAR, 2005

228 ORRALDE, 15,30 EURO

Aritz GALARRAGA

Iragana pisua izan daitekeela gauza jakina da. Are azken 17 urteak kaiolan eman badituzu. Antton Ihartzegarai fikziozkoaren kasua da hori, Txillardegiren azken nobelako protagonistarena. Liburua urte luzeetako kartzelaldiaren amaierarekin hasten da, preso ohia Labartzara, jaioterrira, itzultzen denean. Eta barruan prestatutako bidaia kontrakronologikoari hasiera ematen dio, denboran atzerako bidaiari, erori aurretik esanahia izan zuten lekuetara. Enpatia ariketa ezinezkoa egoera bizi izan ez duenarentzat hemen proposatzen dena, egoera gertutik bizi izan duenak besterik kontatu ezin dezakeena. Antton Ihartzegarai preso ohia, preso ohi oren paradigma izan litekeena.

Atera eta lehen gauza memoria hainbatetan berrikusitako lekuak bisitatzea du helburu. Nahi nagusi batekin: «kutsatu gabeko eskualdearekin» topo egitea, «gure herriak bizirik dirauela egiaztatuko». Baina talka nabarmena gertatzen da usteen eta errealtatearen artean. Hala egiaztatzen du Anttonek, «gure kontuak oker daude, han barruan uste genuena baino» dioenean. Inmobiliariek baserri zaharren lekua zementuz bete dutela ikustean gertatzen da talka. Jendeak euskaraz hitz bakar bat ere ahoskatzen ez duenean, gazteekiko desadostasun politikoak azaleratzen direnean. Eta sartu



zutenean atzean utzitako sorterrria joan da betiko. Akabo. «Behin eta berriz ametsaldiak kitto, eta errealtate gordina gailen». Azken batean egoera berri horren kontzientzia hartzearen nobela da *Labartzari agur*.

Baita birkokatze saiakera bati buruzko lana ere. Hala ere, nahiz eta saiakera egin, egoera berri horretan lekuri ez daukaren sentsazio gailentzen zaio gaitibu ohiari. Iragana itzuli ohi zaio amesgaiztoaren atzera. Burua ia galtzeraino. Errealitate berriari amore eman nahi ez eta ezin moldaturik dabil. Labartzatik alde egitea erabakitzen duen arte. Erretiroa

hartzen duen arte. Erretiroa hartu ondorengoei bide egiteko.

Ihartzegararen bidaia honetan irakurleak ere bidaizteko aukera du. Ikusten duenaren deskribapen luze, pausatu eta zehatzak egiten ditu, luzaz egunargia ikusi ez duenak egingo lukeen bezala. Eta protagonistak lekuak berraurkitzen joan ahala bizipenak sentiarazten ditu, eskuz-eskuz doaz narratzailea eta irakurlea. Labartzara, kostalde, itsasoa, Baiona, Arcahon... denboran atzera beti. Lehengo lekuak bisitatzearekin batera galdera berriak egiten dizkio bere buruari. Etengabe ari da galderak egiten. Bizitzaren eta heriotzaren eta abarren gaineko galderak. Hemen Txillardegiren ohioko kezak agertzen dira, kezka existenzialistak. Autore honen obra definitu duen adjektiboarekin defini baitaiteke lan hau ere.

Neurri batean nobela politikoak ere bada Txillardegiren azkena. Errezeloak sor ditzaketek gai politikoak sakon aztertzea gabe plazaratzen da ezker abertzalearen baitan azken urteotan sortu den eztabaida nagusia. Antton Ihartzegarai ez du onartu nahi politikaren garai iritsi dela, aro berriaren atarian daudela, gaudela. Txillardegik pertsonaia mendi puntan galdurik den etxola batera bidaltzen du nobelaren amaieran, gai politikoak sakon aztertzea gabe hala ere. Nahikoa baita iradokitzea.

Iragana pisua izan daiteke bai. «Izana izen gaiztoa» dio esaera zaharrak. Baina lan honek ez du amaiera ezkor edo itxirik. Alderantz, Anttonek badirudi kontent hartzen duela erretiroa liburu, aldizkari eta paperen artean. Onartu egin baitu bere aroa joan egin dela, atzetik datozenek hartu behar dutela boza. Eta joanak joan, kontua da atzetik datozenak hemen daudela.

Xabier IZAGA



Elkartasun keinua

Inoiz irakurri gabeko liburu bat izan dut hizpide. Orain, kasu baterako. Halaxe egin zuen Xabier Mendiguren Elizegik ere «Adiskide maitea:» gutun liburua aurkeztu zuenean, berak hartan parte hartu badu ere, artean irakurri gabe omen zuen eta. Askotan egile baten izena nahikoa berme gertatzen zaigu liburua gustura irakurriko dugula jakiteko, baina ez dago zertan hala izanik. Liburu honetan, ordea, ez da idazle ezagun baten izena, 18rena baizik, eta jende askorentzat horiek guztiak bakaurrean ere nahikoa berme izanda, pentsatu egizu denak batean. Zerrenda hau argitaratzerako Durangon izango dugu «Adiskide maitea:» eta, berriro ere Mendigurenen hitzak ekarrita, liburu hori eskuratzeko «elkartasun keinu bat da». Nik ez dut betiko leloa denik uste. Izen horiek ikusita, eta halaxe esan zuen aurkezleak, badakigu iritzi askotako idazleak bildu dituela liburuak. Eta gutunetan ez omen duete beren pentsaera gortetzen. Horrek biderkatu egiten du lanaren—giza eta are literatura lanaren—balioa. Lagun edo gogaidearenganako laguntza gisa ulertu ohi da elkartasuna; zenbait hiztegiak hala biltzen dute, helburu edo arazo berberak dituztenen arteko laguntza gisa, alegia. Baina hori interes hutsa ere izan liteke. Uste dut gako ageri samarrean jarri dutela idazle horiek: elkartasuna, edozein forma hartuta ere, ez da interresduna.

Bestetik, Txalaparta argitaletxeak aukeratu duen generoa—uste izatekoa baita argitaletxeak proposatu duela formatua—erabilieta da presondegiatan, poesiarekin batera, ondoren argitaratu zain ez. Bi adibide antzinako: «Linguae Vasconum Primitiae» eta «De profundis».

Dagoeneko Durangon dugu salgai, beraz, eta aurrerantzean ere liburu-dendetan. Baina liburua erostean harago, uste dut irakurteaz ere badela benetako elkartasun keinua. Argitaletxeak bi edizio egin omen ditu, bata tapa gogorrekoa eta bestea tapa bigunekoa. Tapa bigunekoa liburua espekteetara sartu ahal izateko, jakina (agintariekin, beti ere irizpide egokiarekin, ez baitute gogorkeriarik onartzen). Tapa gogorrekoa, berriz, neure artean egin dut nik, agintariekin burua biguntzeko. Ez dago gaizki pentsatuta.

[NOBEDADEAK]



MUNDUO HAMAR IPUI

ASKOREN ARTEAN. BILTZA: CARMEN IBARLUZEA
GATUZAIN, 2005
141 ORRALDE, 10 EURO

NORBERAREN ETA BESTEEN HEZIKETARAKO LAGUNGARRI Bost kontinenteetako hamar ipuin bildu zituen Carmen Ibarluzeak orain Edurne Alegriak itzuli duen liburu honek. Kultura ezberdinetako ahozko tradizioak dira bertan jasotako lanak, baina ez da, ordea, ohi ipuin bilduma bat; hezkuntza helburu etiko duen pertsonaren formazioa bideratzeko baliatutako kontakizunak baizik. Filoso-fiaren hazia dira ipuiok, liburuaren azpittuloak dioten moduan, «norberaren eta beste-en heziketarako lagungarri-suerta daitezkeenak.



ETORKIZUNA

IBAN ZALDUA
ALBERDANIA, 2005
113 ORRALDE, 12,50 EURO

IRAGANA ETA ETORKIZUNARI BURUZKO IPUIN POLITIKOAK «Traizioak» eta «Itzalak»-en ondok, «Etorbizuna» ipuin liburua kaleratu berri du Iban Zalduek, baina, aurrekoen aldean, kontakizunen arteko lotura hurbilagoa dago oraingoa. «15 ipuin ia politiko» du azpittulu liburuak, hain zuzen ere hamabost kontakizunek gatazka politikoa dutelako eszenatoki. Ez diote afera politikoari munitik heltzen, baina hori bizi dira, gatazkaren zurrubiloaren erdian; eta, noski, honek zipiritzinduko egiten ditu. Iragana eta etorkizunari buruzko gogoeta.



LOS VASCOS EN EL MADRID SITIADO

JESUS GALINDEZ
TXALAPARTA, 2005
251 PAGINA, 18 EURO

TESTIMONIO DESDE LA RETAGUARDIA Testimonio escrito en primera persona del que fuera miembro de la delegación del PNV y del Gobierno Vasco en el Madrid en guerra de 1936. El testimonio abarca el periodo que va de noviembre de 1936 a mayo de 1937 y en él, Galindez, además de apuntar datos y hechos, refleja la postura de quienes quisieron ganar la guerra desde los más estrictos parámetros de democracia, humanidad y respeto de los derechos humanos, empezando por los de los adversarios.



UMEEK GEZURRA ESATEN DUTENETIK

UXUE APAOLAZA
EREIN, 2005
96 ORRALDE, 10,70 EURO

IDENTITATEA ETA TRAZIO PERTSONALAK Errealitatea bere gordinen azaltzen duten ipuinak argitaratu berri ditu Uxue Apaolaza idazle gazteak bere lehenengo liburua den honetan. Iban Zalduek idatzitako hitzaurreak dioten bezala, irakurleak deseroso sentiarazteko moduko kontakizunak dira. Izan ere, egileak berak aitortu duenez, ez omen da ongi pasatzeko lana, barneak usteko, minak agerian jartzeko eta mamuak astintzeko erabili ohi du idazketa. Gainagusia, berriz, identitatea da; geure buruari egiten dizkiogun traizioak.